

**UDAL-BATZARRAK 2.003KO MARTXOAREN 6AN EGINDAKO OHIKO BILKURARI
DAGOKION AKTA**

LEHENDAKARIA: Jose M^a Sarasola Goenaga

ZINEGOTZIAK:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka
Miren Maite Aizpurua Etxeberria
Mikel Errazkin Agirrezabala
Rafael Uribarren Axpe

IDAZKARIA:

Nerea Etxebarria Atutxa

AZTERGAIAK:

- 1.-2003ko otsailaren 6ko Osoko Bilkurako aktaren onarpena.
- 2.-Alkatetzako dekretuen berri ematea, 16 zenbaitik 68 zenbakira, biak barne.
- 3.-Egunkariaren itxierari buruzko mozioa.
- 4.-Saharako Herriaren aldeko mozioa.
- 5.-Aranzadi Zientzi Elkartearen eta Anoetako Udaletxearen arteko Hitzarmenaren onarpena.
- 6.-Udala eta Construcciones Aburuza S.A. eta Berasategui Ormazabal anai-arreben arteko ondasun higiezinaren trukea.
- 7.- Galde-erreguak.

Anoetako Udaetxean, bi mila eta hiruko martxoaren seian, arratsaldeko zazpi terdietan, Udal-Batzarra bildu da, Ohiko Bilkura egin asmoz JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA Alkate jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipaturiko zinegotziak dituela.

Nerea Etxebarria Atutxak, Udal honetan Idazkari Akzidentala bezala jardunean ari denak, denaren berri zinpean jasotzen du.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.- 2003ko otsailaren 6ko Osoko Bilkurako aktaren onarpena.

Aipaturiko akta alkateak irakurri du eta udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onetsi dute akta.

2.-Alkatetzako dekretuen berri ematea, 16 zenbakitik 68 zenbakira, biak barne.

Idazkari-Kontuhartzailearen oharra: gaizki dagoela gaurko Osoko Bilkuraren deialdi idazkian, gai zerrendan zehazki ere, Dekretuen zenbaketa 545 zenbakitik 597 zenbakira, akatsa izan dela zeren 2003.urte hasieratik 1etik zenbatzen hasi behar diranez, kasu honetan tokatzen diranak 16 zenbakitik 68 zenbakira, biak barne dirala.

Akatsa 2003ko otsailaren 6an ospatutako Osoko Bilkuratik datorrela dio Idazkariak zeren orduan ere akatsez aurreko urteko zenbaketakin jarraitu zela eta gaizki zegoela Osoko Bilkuraren deialdian Dekretuen zenbaketa eta zuzena zera izango zela: 503 zenbakitik 529 zenbakira bitarteko 2002ko Dekretuak eta 1 zenbakitik 15 zenbakira bitarteko 2003ko Dekretuak.

Jarraian, Alkateak emandako ebazpenen berri ematen du, horiek 16tik 68ra bitartekoak izanik, biak barne.

Udalbatza jakitun geratzen da.

3.-Egunkariaren itxierari buruzko mozioa.

Alkate jaunak azaltzen du mozio ugari heldu direla toki ezberdinetatik, baina ez zaiela iruditu egokia mozio guztiak banan banan ekartzea Osoko Bilkurara eta Euskara Batzordetik guztiekin bakarra egin dutela. Jarraian Mikel Errazkin Euskara Barzordeburuari eman dio hitza, berak azaldu dezan aurkeztzen den mozioa.

EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Rafael Uribarren Axpe jaunak esan du bere taldeak ere mozio bat ekarri duela, Legebiltzarrean aurkeztuko dutena hain zuzen ere, eta banatu egin du.

ASA taldeko zinegotzia eta Euskara Batzordeburua den Mikel Errazkin jaunak esan du berak ez dituela bi mozio ezberdin bozkatu nahi. Bere proposamena aurkezturiko bi mozioekin bat egitea dela. Lehenengo ASA taldearen mozioa irakurri du eta esan du oinarrian Kontseiluak aurkezturikoa dela.

Jarraian azaldu du bakoitzetik zein puntu jarri eta kenduko lukeen, mozio bakarra osatzeko.

ASA taldeko zinegotzia den Pedro Maria Peñagarikano jaunak dio bera ere ados dagoela Mikelek esandakoarekin zeren azken finean bi mozioek antzekotasun ugari dituztela: lehenbiziko puntuak berdintsuak

dirala bietan, baita hirugarren puntuak ere, EAJ/PNV-EA ren mozioaren seigarren puntua eta gurearen bosgarren puntua ere berdintsuak dira.

EAJ-PNV/EA taldeko Rafael Uribarren jaunak dio ea garrantzitsua den aurkezten duten mozioko 6. Puntua, batzorde bat sortzearena hain zuzen ere, mantentzea, zeren berak nahiago lukeela hori ez jartzea.

ASA taldeko zinegotzia den Mikel Errazkin jaunak erantzuten dio ezinbestekoa dela, hitzetatik ekintzetara pasatu nahi bada.

EAJ-PNV/EA taldeko Rafael Uribartren jaunak dio hitzetatik ekintzetara pasatzeak ez duela esan nahi ekintzak asanblearioa izan behar duenik, Jaurlaritzak ere bere babesa eta laguntza eskeini duela dio.

ASA taldeko Mikel Errazkin jaunak erantzuten dio ez dela ekintza asanblearioa, baizik eta alderantziz zeren Anoetako Euskara Batzordea sortu zenetik hasierako muina dauka ahalik eta herritar gehinenen partaidetza izan behar duela, besteak beste Euskararen Normalkuntza ez delako lortuko agintarien ildoetatik bakarrik baizik eta baita gizarte eragile eta euskalgintzako kideez osatua badago.

Horregatik horrelako eraso baten aurrean edo egunkari bat abian jartzeko ere, hiru inplikazio horiek beharko ditugula dio, alegia, Udal Inisuzioena, Euskalgintzako kideena eta herriko gizarte eragileena

ASA taldeko zinegotzia den Pedro Maria Peñagarikano jaunak dio berak, EAJ-PNV/EA ren mozioko 7. puntua eta ASAre mozioaren 6. puntuaren artean ez duela kontresanik ikusten. Ez dituela ikusten bata bestearen kontra ikusten dio.

EAJ-PNV/EA taldeko Rafael Uribarren jaunak dio ezetz, ez direla kontraesangarriak, osagarriak direla baina batzordearen puntuak kezkatzen duela. Dena den dio eurek Kontseiluaren gidaritza ekiditu nahi dutela, beste modu batera egin nahiko luketela gidaritza, Kontseilua ardatza izan gabe. Horrek kezkatzen duela bera.

ASA taldeko Pedro Maria Peñagarikano jaunakeuren mozioa ez dagoela inondik bidalia, baizik eta arratsaldean bertan prestau dutela beraiek.

Alkateak hitza hartu du eta esaten du Batzordearen asuntza datorrela hainbat moziotan agertzen zelako Udalak egingo zuen diru ekarpena zehazteko eta eurek pentsatu dutela Udalak zuzenean diru kopuru bat erabakitzea baino hobea zela horretarako Batzorde bat osatu, irizpideak markatuko dituen eta jarraipena egingo diona..

Mikel Errazkin jaunak erantzuten dio Rafael Uribarren jaunari, esanez oso zaila izango dela beste edozein proiektu martxan jartzea Kontseiluaren gidaritza ekidinda, besteak beste Egunkaria sortzen aritu ziren euskalgintzako kide ezberdinek Kontseilua sortu zutelako, barne eztabaida luzeen ondoren euskalgintzako kide, erakunde eta talde guztien kohesio talde bezala.

Rafael Uribarren jaunak dio hori horrela izanik ere agian beste ikuspuntu zabalago bat eman beharko litzaiokeela beste aldizkari berri bat sortu nahi bada. Hala ere dio honek ez duela lotzen gauza bat bestearekin eta ondo deritzola bi mozioak uztartzeari.

Erabakia:

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez hurrengo mozioa onartu dute:

“EGUNKARIA AURRERA. BAI EUSKARARI!

Otsailaren 20an Guardia Zibilak, Juan del Olmo epailearen aginduz, Euskaldunon Egunkariaren egoitzak itxi eta 10 lagun atxilotu zituen, euskaraz idatzitako egunkari bakarraren aurkako operazioan. Argia eta Jakin aldizkariak, Herri Irratia, Ikastolen Federazioa eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa ere miatu zituen operazio hartan.

Eraso horiek, eta euskalgintzako beste erakunde batzuen aurka lehenago izandako beste hainbat, euskararen normalizazioaren aurkako estrategia kalkulatu eta iraunkor baten barruan kokatzen ditu Anoetako Udalak. Egoera horren aurrean ondoko mozioa aurkezten du Osoko Udal Batzarrean eztabaidatu eta onartua izan dadin:

1.-Anoetako Udalak Euskaldunon Egunkariaren itxiera eta bere arduradunen atxiloketa salatu nahi du, euskararen normalizazioaren, informazio eskubidearen eta adierazpen askatasunaren aurkako erasoak direlako eta atxilotutakoen errugabetasun presuntzio eskubidearen urraketa suposatzen duten Barne Ministerioaren eta Auzitegi Nazionalaren ekintza bateratu hauek salatu nahi dituelako.

2.-Giza Eskubideen Nazioarteko adierazpenean jasotzen den eta Nazio Batuen Batzar Orokorrak 217 A (III) ebazpenean aldarrikatzen den "tortura, zigor eta tratu krudel, ezgizatiar edo degradanterik ez jasateko" eskubidearen egunerokotasuna berrestea eta hiritargo osoari eskubide horiek bermatzeko erakundeei euren konpromezua eskatzea. Ikuspegi honetatik gai honekin zerikusia duten atxiloteten ondorioz egon diren tortura eta tratu txarren salaketak azken muturreraino ikertu daitezela, egon daitezkeen ardura penal eta politikoak zurutuz.

3.-Autoek egiaztatzen dute, neurriok helburu politikoa dutela:

3.a)Barne Ministerioaren menpeko den Guardia Zibilaren informazio zerbitzua da, Egunkaria, S.A. enpresaren sarrera eta erregistroa hasi gabe, komunikabidearen itxiera eskatzen duena eta Juan del Olmo epaile magistratuak eskaera bete baino ez du egiten.

3.b)Barne Ministerioak eta Auzitegi Nazionalak elkar sinatutako prentsa oharra agerian uzten du auto hauek guztiak erabaki politiko baten ondorio direla.

4.-Eraso hau euskararen aldeko jarduera oro susmopean jarri eta kriminalizatzeko saio bat gehiago delako eta euskararen normalizazio prozesua geldiaraztea helburu duelako tinko deitoratzen du Udal honek.

5.-Udal honek bere elkartasuna adierazi nahi die operazio honetan atxilotutakoei eta kartzelaratuuen berehalako askatasuna eskatzen du. Euskaldunon Egunkariko langile, arduradun, eta irakurleei ere elkartasuna adierazi nahi die, bai eta Argia eta Jakin aldizkari, Herri Irratia, Ikastolen Federazioa eta Euskalgintza Elkarlanean Fundazioko kide guztiei ere.

6.-Anoetako Udalak bereziki Alazne Iruretagoiena eta Koldo Aldabe anoetarrei adierazi nahi die elkartasuna.

7.-Udal honek Euskaldunon Egunkariaren aurkako eraso amaitu eta kioskoetan berriro egon dadila exigitzen du, eta Euskaldunon Egunkari mantentzeko edo sortzeko konpromezua adieraztea.

8.-Udal honek ahalik eta herritar gehienen partaidetzaz osatutako batzorde bat osatuko du; eraso honek sortutako arazoak eta Euskaldunon Egunkaria berrabiarazteko laguntzak batzea izango duelarik helburua. Batzorde honetan alderdi politiko bakoitzetik gutxienez zinegotzi batek parte hartuko du. Lehen bilera martxoaren 11ean, arratsaldeko 19:30ean burutuko da Anoetako Udaletxean eta anoetarrek parte har dezaten deia luzatuko da."

4.-Saharako Herriaren aldeko mozioa.

Alkateak Sahararen inguruan bidalitzako mozioa aurkeztu du.

Erabakia:

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez hurrengo mozioa onartu dute:

“Anoetako Udalak, hurrengo urtarrilaren 31n Ekialdeko Sahararen deskolonizazio prozesuaren amaiera dela eta, Nazio Batuen Seguritasun Kontseiluak egingo duen bilerari begira eta 1994ko, 1997ko, 1999ko eta 2001eko adierazpenak onartu zituen espiritu berberarekin **honakoa adierazten du:**

Saharako Herria, bere askatasunaren eta bere herrirako eta Magreb-eko eskualde osorako bakearen bila egiten ari den bidezko borrokaren aldeko dela **ERREPIKATZEA**.

Nazioarteko eskubidearekin eta UNOko erabakiekin nahiz nazioarteko erakunde ezberdinenekin bat etorriz, presio militar, administratibo edo politikotik at dagoen autodeterminazio-erreferendum baten bidez Saharako Herriak bere etorkizuna libreki erabakitzeko duen eskubidea **BAIEZTATZEA**. Egoera ikusita, Nazio Batuen Bake Plana eta 1997. urteko Houstongo akordioak, eskubide hau aurrera eramateko formularik eraginkorrena dira oraindik ere eta gatazkako bi alderdien oniritzia eta Nazioarteko Komunitatearen aho bateko onarpena izan duen bakarra da gainera.

Nazio Batuei eta batik bat bertako Idazkari Nagusi den Kofi Annan jaunari eta Ekialdeko Sahararako Mandatari den James Baker jaunari, dagozkien ardurak harturik, Saharako Herriak autodeterminaziorako duen eskubidea gauza dezan premiazko neurriak har ditzaten **ESKATZEA**, Bake-prozesuaren blokeo-egoera gaindi dadin eta egoera honek milaka saharar errugaberengan sortzen duen sufrimenduak amaiera izan dezan.

Europako Batasuneko erakundeek Bake Planaren garapenean inplikazio handiagoa izan dezaten **ESKATZEA**, nazioarteko esparruan dagokien egitekoa beraien gain hartuz eta Marokori nazioarteko legeria errespeta dezan eta Ekialdeko Sahararen bidegabe okupaturik dituen lurraldeetan giza eskubideak errespeta ditzan exijituz hartu-emanak dituztenean.

Marokoko Erreinuak orain dela 27 urtez geroztik Ekialdeko Saharako lurraldean militarri egin duen okupazio ilegala **SALATZEA**, baita pertsona-mailako eskubideen nahiz eskubide kolektiboen urraketa sistematikoa ere okupaturiko lurraldeetan. Saharar izate hutsagatik sistematikoki jarraituak izatea, atxiloteta arbitrarioak, desagertze behartuak, torturak eta tratu txarrak, erakunde independenteek behin eta berriz salatu izan dituzten gaiak dira, baina orain artean ez da emaitza esanguratsurik lortu.

Marokori Saharako preso politiko guztiak aska ditzan eta nazioarteko erakundeek aitorturik dituzten 500 desagertu baino gehiago non diren argi dezan **EXIGITZEA**, baita ikerketa-batzordeek, erakundeek, pertsonak eta prentsa independenteek lurraldean sartzeko baimena izan dezaten exijitzea ere, errealitatearen lekukotza emateko aukera izan dezaten eta jarraituriko pertsonen laguntza eman diezaieten.

Espainiako Gobernuak nazioarteko foroetan, Saharako Herriaren eskualdean bakea mantentzea bermatuko duen irtenbide politiko onargarria bilatzeko jarrera manten dezan **ANIMATZEA**, halaber, deskolonizazio-prozesuan izan dituen ardura historikoen aitormena oinarri hartuz, UNOren eta EBren esparruan egiteko aktiboagoa har dezan presatu nahi dugu, Afrikan azken deskolonizazio-prozesu hau amaitu dadin lortzeko.

UNOri, Europako gobernu ezberdinei eta bereziki, Espainiako gobernuari eta eskualdeetako gobernuari, Saharako herri errefuxiatua jasaten ari den elikagaien krisia arintzeko fondo bereziak aska ditzaten **ESKATZEA** lehenbailehen (hornikuntza ziurtatzeko abian diren lankidetzak bitartekoz gain), gai honen inguruan urtez urte lanean diharduten kooperazio-erakundeak laguntza emanaz.

5.-Aranzadi Zientzi Elkartearen eta Anoetako Udaletxearen arteko Hitzarmenaren onarpena.

Alkate jaunak Mikel Errazkin zinegotziari eman dio hitza gaia azaldu dezan.

ASA taldeko Mikel Errazkin jaunak dio ARANZADI elkarteak egiten ari den lana luzaritu beharra ikusi dutela, hasiera baten uste zuten baino agiri gehiagorekin topatu diralako euren ikerkerta egiterakoan.

EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Rafael Uribarren jaunak dio jasotzeko gauzak baldin badaude interesgarria dela hitzarmena luzatzea.

Erabakia:

Udalbatzarrerera bertaratutakoek ahobatez onartu dute Aranzadi Zientzia Elkarte eta Anoetako Udalaren artean hurrengo hitzarmen hau sinatzea:

***“TOLOSALDEA: HISTORIA ETA KULTUR ONDAREA”
izeneko lan ikerketaren garatzea luzatzeko ARANZADI
Zientzi Elkartearen eta ANOETAKO Udaletxearen
arteko hitzarmena.***

BILDUTA:

ALDE BATETIK, JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA JN., ANOETAKO ALKATEA,

**ETA BESTETIK, JOSE MIGUEL LARRAÑAGA BAGINIETA JN., ARANZADI ZIENTZI
ELKARTEKO LEHENDAKARIA.**

HONAKOA ADIERAZTEN DUTE:

LANKIDETZARAKO BIDE BERRIAK URRATU ETA HERRIKO HISTORIA ZEIN ONDAREAREN INGURUAN IKERKETA ETA ZABALTZE KULTURALA JORRATU NAHIAN, BI ERAKUNDEEK “TOLOSALDEA: HISTORIA ETA KULTUR ONDAREA” IZENENKO LAN IKERKETA GARATZEN JARRAITZEKO HITZARMEN HAU SINATZEN DUTELA, ONDOKOAK DIRELARIK BERAU ARAUPETZEN DUTEN

KLAUSULAK

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAK HONAKO PLANGINTZA GAUZATUKO DU:

1.-Lanerako irizpideak:

- ***Euskara hutsean lan egitea.***
- ***Egundaino egin diren ikerketa historikoak gainditzea, metodologia gaurkotuaren bitartez. Ikertzaile edota jakinmina duen ororentzat funtsezko materiala eskuragai bihurtzea. Kultur Ondarea zerrendatzea eta zehaztea.***
- ***Osatzen ari den datutegian azaldu eta Anoetako herriarekiko lotura duen informazioa gizarteratzea.***

2. Helburuak:

- **Herriko agiri historikoak eta informazio bibliografikoa datu base amankomun batean biltzea, egun erabat barraiatuak baitaude: Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, Gipuzkoako Protokoloen Agiritegia, Udal Agiritegiak, Valladolideko Chancilleria Agiritegia, Simancaseko Agiritegia, Donostiako Elizbarrutiko Agiritegia, Iruñeako Elizbarrutiko Agiritegia, Agiritegi Pribatuak, Artxiboen katalogoak etab.**
- **Bertako bizilagunak beraien ingurune historiko, natural eta kulturalaren jabe bilakatzea. Ezagutza hobetzea; interesa eta harrotasuna sortzea**
- **Zabalkuntza lantzea teknologia berrien bitartez: Internet, Datubase digilizatuak,...**
- **Udalerrri honen Ondarearen inguruan sor daitezkeen kezken zein arazoen gaineko aholkularitza iraunkorra.**
- **Udalerrri honi buruz Kultura Sailak dituen Kultur Ondareko Inbentarioaren zuzenketa; datu berriak gehitzea.**
- **Argitaratuko diren txosten, foileto, liburu edo artikuluetan, Udalerrriko ikurra azaltzea.**
- **Aranzadi Zientzia Elkarteak partaide guztiekin batera eman beharreko aurkezpen saio publikoan ere Udaletxe Txit Gorena honi tokia bermatzea.**
- **Egindako lanaren berri ematea urtero.**

3. Egutegia eta epeak

Hiru urtetara begira honako banaketa proposatzen dugu, beti ere egin beharreko aldakaten berri Udaletxe Txit Goren honi berri emango geniokeelakoan:

- **2003-2004:**

Udal agiriak. Gipuzkoako Agiritegiak: Protokoloetakoa eta Nagusia

- Beste Erakundeek egindako Ondasun Inbentarioak errepasatzea, osatzea eta gaurkotzea:

Eusko Jaurjaritza: Ondasun Historiko-Artistikoaren Inbentarioa. Ondasun Arkitektoniko Industrial Historikoaren Inbentarioa. Ondasun Historiko-Arkeologikoaren Inbentarioa. Errota eta Burdinolen Inbentarioa.

Gipuzkoako Foru Aldundia: Ondasun Higikorren Inbentarioa.

Gipuzkoako Eliz-Barrutia: Eliz-Barrutiko Inbentarioa

Aranzadi Zientzia Elkarteak: Megalitoen Karta Arkeologikoa. Haitzuloen Karta Arkeologikoa.

- Jasotako datu guztiak datu-basean biltzea.

- 2005:

- Agiriak emandakoaren arabera azken zehaztapenak.

- Udaletxean entregatu beharreko agiriak egokitu eta bateratu Euskarri informatikoak prestatu.

- Erabateko idazlana gauzatu

ARRAKASTATSU ETA KALITATE ONEKO IKERKETA AURRERA ATERATZEKO GAUZATZEKO BEHARREZKOAK DIREN IKERTZAILE PROFESIONALAK KONTRATATZEA EGITASMO HONEN INGURUAN HAINBAT UDALERRI BATZEAK EGINGO DU POSIBLE. HAU DELA ETA, ANOETAKO UDALAK, BERE ALDETIK, HONAKO ARDURAK HARTZEN DITU:

4. Finanziaketa

- Aipatutako hiru urteren zehar, laguntza ekonomia luzatzea, ondoan proposatzen den modura:

θ **2003. urtean: 6.100 euro.**

θ **2004. urtean: 6.100 euro.**

θ **2005. urtean: 6.100 euro.**

- Diru kopuru hau Aranzadi Zientzi Elkarteak duen kontu korrentean zuzen-zuzenean sartuko da, legokioken urtean, lehendabiziko hilabetean honako gaipean: "Anoetako Udala. Historia eta Kultur Ondarea 2003". Aranzadi Zientzi Elkarteak jasotakoaren ordainagiri ofiziala emango duelarik.

5. Kontsultarako erreztazunak

θ **Anoetako Udalak, udal agiriak kontsultatzea erraztuko die Aranzadiko ikertzaileek, ahal duen heinean lana aurrera ateratzeko behar den sustapena emanaz.**

ETA ALDE BIEN ADOSTASUNA ADIERAZTEKO SINATZEN DUTE HONAKO HITZARMEN HAU, DONOSTIAN, BI MILA ETA HIRUKO

6.-Udala eta Construcciones Aburuza S.A. eta Berasategui Ormazabal anai-arreben arteko ondasun higiezinaren trukea.

Ikusirik Anoetako Udala eta Construcciones Aburuza S.A eta Berasategui Ormazabal anai arreben artean Anoetako San Juan kaleko 6 D eta 6 B atarien beheko oinetan kokaturiko B3 eta C1 lokal komertzialen permutarako proposamena.

Ikusirik Idazkari-Kontuhartzaileak eginiko txostena.

Ikusirik Anoetako Udala eta Construcciones Aburuza S.A. eta Berasategui ormazabal anai arreben artean sinatzeko Hitzarmen proposamena.

Erabakia:

Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez hurrengo erabakia hartu dute:

Lehenik: Anoetako Udala eta Construcciones Aburuza S.A. eta Berasategui Ormazabal anai arreben artean hurrengo Hitzarmen sinatzea:

“BILDU DIRA

BATETIK.-

JOSÉ MARIA SARASOLA jauna, Anoetako Udaleko Alkate-Lehendakari gisa.

BESTETIK.-

PEDRO MARÍA ABURUZA REZOLA jauna, adinez nagusia, ezkondua, Zizurkilgo Mutio Etxean z/g bizi dena eta ENA 15.919.916-Y duena.

JESÚS M^a BERASATEGUI ORMAZABAL jauna, adinez nagusia,ezkondua, Tolosako Larramendi 1, 5.ean bizi dena eta ENA 15.870.922-W duena.

JARDUTEN DUTE

JOSÉ MARIA SARASOLA jaunak, 2003ko martxoaren 6an egin zen Osoko Bilkuran eman zitzaion baimenaren arabera.Baimen hori egiaztatzen duen ziurtagiria dokumentu honi erantsi zaio - I. eranskin gisa-.

PEDRO MARÍA ABURUZA REZOLA jaunak, helbidea, BILLABONAKO Kale berriko 46. zenbakian duen, 92 posta kutxa duen eta IFK: A-20178364 duen Construcciones Aburuza S.A. enpresaren izenean eta ordezkari gisa.

JESÚS M^a BERASATEGUI ORMAZABAL jauna BERASATEGUI ORMAZABAL anai-arreben izen eta ordezkari-tza, dokumentu honi II. eranskin gisa eransten zaion boterearen bidez egiaztatzen dena.

Alde guztiek, esku hartzen duten neurrian, elkarrekiko, Hitzarmen hau emateko gaitasuna aitortzen diete, eta aurretik ados jarrita honako hau

ADIERAZTEN DUTE

- I -

Anoetako Udalak Hirigintzako Hitzarmen hau sinatu duela Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen 4. artikulua kontuan hartuta. Bertan, honako hau zehazten da:

“Administrazioak, egokiak iruditzen zaizkion kontratuak, hitzarmenak eta baldintzak hitzartu ahal izango ditu, beti ere interes publikoaren, antolamendu juridiko edo administrazio egokiko printzipioen aurka ez badoaz, eta euren arabera bete beharko ditu, haren aldeko oinarritzko legeriak ezarritako eskumenak kaltetu gabe”.

- II -

Anoetako Udalak, Anoetako Arau Subsidiarioen Testu Bategineko 2. Eremuko hirigintza-aprobetxamenduaren %10a jaso zuen eta B lursaileko beheko oinean 350 m²-ko lokal bat eman zioten. Dena den, azalera hori hiru lokaletan banandu zen, bi C lursailean kokatuak: C1 63,09 m²-koa eta C2 101,13 m²-koa; eta hirugarrena B zatian: B2, 186,12 m²-koa.

- III

Gaur egun Udalak, B2 lokalaren azalera handitu nahi du; horregatik garrantzitsua litzateke alboko B3 lokala eskuratzea.

- IV -

*Berasategui Ormazabal anai-arrebei **B3** lokal komertzialaren %78,65eko parte-hartze zatitu gabea zazpi parte berdinetan dagozkiela eta Construcciones Aburuza S.A. enpresa berriz lokal horren %21,35en jabe dela. B3 lokala, Anoetako San Juan kaleko sei D zenbakiarekin adierazitako atariko beheko oinean dago, eta honela deskribatuta dago:*

“Hirurogeita hiru metro eta bederatzi dezimetro karratuko (63,09 m²) azalera eraikia, eta berrogeita hamazazpi metro eta berrogeita hamabost dezimetro karratuko (57,55 m²) azalera erabilgarria ditu.

Mugak: Iparraldean, kanpoko itxitura, erabilera publikoko espaziora begira; Hegoaldean, kanpoko itxitura, San Juan kalera eta sei D zenbakia duen atarira begira; Ekialdean, kanpoko itxitura, erabilera publikoko espaziora begira; eta Mendebaldean, B2 letrarekin adierazitako lokalarekin eta sei D zenbakidun atariarekin”.

Finka hori honela dago inskribatuta: Anoetan, 1.965. Liburukia, 34. Liburua; 119. Folia; 1.728. Finka, 1. Inskripzioa.

- V -

Anoetako Udala, Anoetako San Juan kaleko sei B atariko beheko oinean C1 letrarekin adierazitako Lokal komertzialaren %100en jabe dela. Deskribapena:

“Hirurogeita hiru metro eta bederatzi dezimetro karratuko (63,09 m2) azalera eraikia, eta berrogeita hamazazpi metro eta berrogeita hamabost dezimetro karratuko (57,55 m2) azalera erabilgarria ditu.

Mugak: Iparraldean, kanpoko itxitura, erabilera publikoko espaziora begira; Hegaldean, kanpoko itxitura, San Juan kalera eta sei B zenbakia duen atarira begira; Ekialdean, C2 letrarekin adierazitako lokalarekin; eta Mendebaldean, kanpoko itxitura, erabilera publikoko espaziora begira”.

Finka hori honela dago inskribatuta: Anoetan, 1.965. Liburukia, 34. Liburua; 173. Folia; 1.353. Finka, 2. Inskripzioa.

- VI -

*Toki Erakundeetako Ondasunen Araudiaren 112.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, beste hainbat ondasun higiezinekin trukatzuz besterentze-kasuetan ez da enkantea beharrezkoa izango, beti ere egiteko premia egiaztatzen bada eta trukatu nahi den ondasunen arteko balioaren diferentzia, **handiagoa duenarena %40 gainditzen ez badu.***

- VII -

2003ko urtarrilaren 22ko datarekin Raimundo Mendiburu Abad arkitektoak egindako txosten teknikoagatik, trukatzuz hori egiteko aukera justifikatzen da, eta kokapen eta azalera bera dutelako bi lokak horiek balio bera dutela zehazten da; horrenbestez, 112.2. artikulua horretan ezarritakoa beteko litzateke.

- VIII -

Berasategui Ormazabal anai-arrebek eta Construcciones Aburuza S.A. enpresak, Anoetako Udalari, C1 lokalaren ordezkari B3a emateko asmoa adierazi dute.

- IX -

Hori guztiarengatik, bi aldeek borondateak gauzatzearren, Hitzarmen hau formalizatzea bidezkoa ikusi dute honako akordio hauen arabera:

AKORDIOAK

Lehena.- Isabel, Germán, M^a Izaskun, José, Ignacio, Ramón eta Jesús M^a Berasategui Ormazabal jaun-andreak, eta Construcciones Aburuza

S.A. enpresak, eskritura publiko bidez, hitzarmen honetako IV. azalpenean deskribatutako B3 lokalaren jabetza Anoetako Udalari emateko konpromisoa hartu dute, karga eta zergetatik salbuetsita.

Bigarrena.- Anoetako Udalak, eskritura publiko bidez, hitzarmen honetako V. azalpenean deskribatutako C1 lokalaren jabetza, Isabel, Germán, M^a Izaskun, José, Ignacio, Ramón eta Jesús M^a

Berasategui Ormazabal jaun-andreei, eta Construcciones Aburuza S.A. enpresari emateko konpromisoa hartu du, karga eta zergetatik salbuetsita.

Hirugarrena.- Notario eta erregistroko gastuak eta zergak Anoetako Udalak ordainduko ditu.

Laugarrena.- Hitzarmen honen bidez eskuratutako obligazio eta konpromiso guztiak, aipatutako lokalen titulartasunari lotuta joko dira.

Zentzu horretan, finkaren bat transmitituz gero, hirugarren eskuratzaila subrogatutzat ulertuko da obligazio eta konpromiso horietan, gertakari hori espresuki jasoko da, hori dela-eta emango diren dokumentu pribatu eta publikoetan.

Eta ados daudela egiaztatzeko, dokumentu hau izenpetu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.”

Bigarrenik: Jose Maria Sarasola Alkate jauna dagokion eskritura publikoa sinatzeko ahalmentzea.

Hirugarrenik: Akordio honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea, Toki Ondasunen Erreklamenduaren 109.eta Administrazio Jardunbideari buruzko 30/1992 Legearen 42.1 artikuluetan xedatutakoa betez.

7.- Galde-erreguak.

ASA taldeko Pedro Maria Peñagarikano Labaka jaunak aipatu du martxoaren 22, larunbata, Pleno berezi bat egin nahi dutela zinegotzi izandako guztiekin. Oroigarri bat emango zaie eta ondoren bazkari bat egingo da. Bere ustez errekonozimendu bat behar dute Anoetako Udalean eginiko lanagatik eta hori eskertzeko izango da. Hortaz pleno labur bat egitea pentsatu dute bakoitzari oroigarri bat emateko eta testu bat prestatu nahi dute, beraz testuia kontsentsuatzeko geraatu behar dirala dio.

EAJ-PNV/EA taldeko Rafael Uribarren jaunak dio kiroldegiaren txosten juridikoaren inguruan ez daukatela gai horrekin aurrera jarraitzeko asmorik baina bai esan nahi duela erakutsi ziela txostena hiorretan aditua den bati eta esan ziela kontratazio legea beste bat dela eta ez txosten horretan jasotakoa.. Nahi dutena dela gehiago horrelakorik ez gertatzea.

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko zortziak eta hamar diranean. Guzti honetaz, nik Idazkariak, fede enaten dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARIA